

Hileta erritoak



TERE MALDONADO
FILOSOFIA IRAKASLEA



PAULA ESTÉVEZ

Paleolitik ez da aldatu gure harri-dura heriotzaren aurrean. Hileta-erritu bat irudikatzean, beti sartzen dira koadroan tristura eta larritasuna halabeharraren aurrean; pintzelkada leunetan edo dosi handietan, kultura horren emozioen tratamenduaren arabera, adierazkor edo neurritsuagoa. Heriotza erritualizatzen dugu, ulertu nahian. Alferrrikako ahalegina, baina egiten jarraitzen dugu milaka urteren ondoren. Heriotza ulertzeak bizitza osotasunean ulertzea suposatuko luke, eta badirudi galdera partzial eta mugatuei baizik ezin diegula erantzun. Hori egiten du zientziak. Kantek zioenez, erantzun ezin dugun horri buruz galdetzen jarraituko diogu geure buruari, garenaren parte baita ulertzen ahalegintzea. Heriotzari zentzua bilatzea, akaso, ulertzeko go-goaren erakusgarri nagusia da, porrote-ra kondenatuta dagoena.

Historiaurreko ehorzketa batzuetan, Kurdistaneko neandertalen aztarnategian, kasu, lurperatutako gorpuzkiak antzinako polenaz estalita daude; horrek hilotzen gainean loreak jar zitezkeela pentsarazi du. Hildakoa hiletarik gabe uztea, sarraskijaleek gorpua akabatu dezaten, krudelkeritizat jotzen dugu; zer esan hilotza zaldi bati lotuta arrastaka eramateaz, Akilesek Hektorren gorpua-

rekin egin zuena, desitxuratuta utzi arte. Antigonak erregearen aginduari desobeditu zion, bere anaietako baten gorpua zaborra bezala botata uztera behartzen zuena. Bizia arriskuan ipini arren, une batez ere ez zuen zalantzatu *hileta-ponpa* egokiak eskaini behar zitzaizkiola anaiari.

Lekuz leku, garaiz garai, aldatzen dira hiletak egiteko moduak, baina egitura sakona aldaezina da: zerbait egin behar da, une batez gelditu eta hildakoei azken agurra eman. Doluminak ematen ditugu, eta eskertu ere bai; formula zurrunik izanik, mina adierazteko adierazpen formalizatuak, doluminak kontraesankorrak dirudite. Leku askotan eta luzaroan ordaindu zaie emakumeei hiletetan negar egin dezaten, gauza harrigarria egungo sentiberatasunarentzat, emozioen adierazpen zintzoekiko mendeko. Negar-kantariak diru-truk beti izaten dira emakumeak, baina literaturako malko ospetsuenak, gizonenak gizonentzako: Gilgameshek Enkiduren heriotza negartzen du, Akilesek Patroklore-na, Jorge Manriquek aitarena, Miguel Hernándezek Sijerena, Lorcak Sánchez Mejíasena.

Fedegabezia modernoa erritua baztertu eta beste zerbaitetara azkar pasatzen saiatu zen; larritasuna areagotzea

baino ez zuen lortu. Maite dugun pertsona baten heriotzak sortzen digun ulertezintasuna adierazi behar dugu liturgia kolektibo batean parte hartuz, horrek bakardadean bizitako sufrimendua ekidin ez arren. Maitasun-haustura batean sonetoez bezala, ordena, metrika, errima jartzen baitute izugarrikerian. Atsekabea sasoiaren eta leku egokian, bizitzak jarraitu behar baitu, topikoak dioenez. Eta jarraituko du. Miguel Hernándezek aipatutako elegia ederrean honela zioen: "Inoren berorik eta kontsolamendurik gabe nire bihotzetik nire kontuetara noa"; bihotz suntsitutik isuna garaiz ordaintzera, deskontua ez galtzeko. *Hila lurpera, biziak asera* dio atsotitzak, errukigabe. Bizitzak jarraitzen du, heriotza erremediorik ez duen gauza bakarra delako. Ez da sinesgarria kristauek diotena, "Aitaren altzoan egongo da jada": hala balitz, zergatik ez die pozik ematen heriotzak? Baina hiletetara doluminak ematera bertaratzen ez denaren ustezko ikonoklasia ere ez da ulertzen, formaltasun hutsa delako aitzakiaz. Kontsolamendurik ezean: erritua, errima, mina bideratzea.

Penintsulara iritsi den azken paterako migratzaileek zenbait gorpu kareletik bota behar izan zituztela esan berri dute irraturan. ●